









AURKIBIDEA INDICE

| | |
|---|---|
|  | ■ Aurkezpena Presentación3 |
|  | ■ Laburrak Breves.....4-9 |
|  | ■ Román Knörr Confebaskeko lehendakariarekin elkarrizketa Entrevista a Román Knörr, presidente de Confebask10-13 |
|  | ■ Enpresek lanbide heziketako tituludunekin duten gogobetetze-mailari buruzko inkesta Encuesta de satisfacción de las empresas con los titulados de Formación Profesional14-15 |
|  | ■ Luis Miguel Ruiz Delgado Michelin (Lasarte) enpresako zuzendariari elkarrizketa Entrevista a Luis Miguel Ruiz Delgado, director de Michelin (Lasarte)16-19 |
|  | ■ Investors in People20-23 |
|  | ■ Prebentzioaren inguruko heziketaren oraina eta geroa Presente y futuro de la formación en prevención24-29 |
|  | ■ Berrikuntzak Ikastetxeetan Novedades en los Centros.....30-43 |
| | ■ Publication contents summary44-51 |



Vicente Touzón Veiga
IKASLAN ARABAko Presidentea
Presidente de IKASLAN ARABA

AURKEZPENA

Ospakizun eta urteurren urtea dugu aurtengoa: hainbat ikastetxek 25 urte betetzen dituzte; 10 beteko ditu Ikaslan Arabak. Eta urteurren horiek oroitzapenerako bidea ematen digute pertsoneri, orainalditik iraganerako bidaia arina egin eta, gero, gertakari eta ekintzei patxadaz erreparatu, iraganetik orainaldira mantsago itzuliz. Oroitzapen-ariketa horiek oso interesgarriak izan ohi dira, eguneroko bizitzan, oroitzeko asti ezean, gogoaren txoko ilunean baztertzan ditugun bizipenetara eramaten gaituzte-eta. Hain zuzen ere, une horietanxe agertzen dira euren kabuz oroitzapenak, eta poz halako batez aipatzen dira lagunartean, agian une atseginak argiago agertzen direlako eta zailak, gaudituz direnean, zakartasuna galtzen dutelako. Horietako ospakizun batean ekarri zuen gogora Iñaki Mujika jaunak nola sortu zen Ikaslanen inguruko mugimendua. Gipuzkoan lehenik, ikastetxeetan argi ikusten ziren beharrek bultzatuta, nahiz eta Hezkuntza Administrazioak, hari dagokion ikuspegi orokorretik, ez gehiegi erreparatu behar haiei.

Ikaslan Arabaren atarikoak eta aurreneko urratsak gogoratzerakoan, Iñakik, baita Imanolek ere, gauza bat zuten batik bat gogoan: egindako bilera ugarietan sortu zen adiskidetasun-giroa. Giro hura hedatzen joan zen, Lurraldeka lehenik eta Erkidego osora ondoren, hiru Ikaslanen bilerek eta sare desberdinetan egiten ziren lan eta proiektuek lagunduta.

Nire ustez, horixe da legatu nagusia, ikastetxe desberdinetako pertsonen arteko harremanak sustatzea, informazioak eta ezagutzak partekatzea eta proiektuei elkarlanean ekitea.

Urteurreneta ia ezinbestekoak diren konparazioak egiterakoan, Ikaslan sortu zenez gerotik (Ikaslan Gipuzkoa 93an, Ikaslan Araba 95ean eta Bizkaia 96an), eta maila orokorrean izan diren aldaketek gain, Lanbide Heziketan erabateko iraultza gertatu dela esatean ia denok gatoz bat. Zenbait faktorek izan dute eragina bilakaera horretan: Administrazioak kalitatezko L.H.-ren alde egin duen apustu serioak, gizarte eragileen eta enpresaburuen ordezkarier partaidetza ere baduen Lanbide Heziketako Euskal Planean gauzatua; helburu argi eta anbizio handikoak dituen Lanbide Heziketako Zuzendaritza dinamiko eta eraginkorra eduki izanak; alorraren pisua indartu zuen Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaen sorrerak...

Hiru azpi-sistemak – Hasierako Prestakuntza edo prestakuntza arautua, langileak birziklatzeko Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza-integratzen dituen L.H.-ren ikuskera moderno horretatik abiatuz, nabarmentzekoa da halaber beste erakunde batzuen ekarpena, batez ere Foru Aldundiak egin dutena. Arabaren kasuan, Foru Aldundiak urteak daramatza enpresetako langileak birziklatzeko Etengabeko Prestakuntza plana bultzatzen eta, prestakuntza hori gauzatzeko, teknologia berriekin bat datozen ekipamendu modernoak hornitzen. Beste erakunde batzuk ere bildu dira Lanbide Heziketaren etengabeko hobekuntzaren inguruko jardura desberdinetara.

Ibilbide luze horretan betekizun garrantzitsua izan dute Ikaslaneoek, estrategiak planteatu eta teknologiaren, gizartearen eta enpresa-munduaren inguruko aurrerapenekin bat zetozen berrikuntza-proiektuak abian jarri; ikastetxeen artean sare moduko lan sistema parte-hartzailea hedatuz, erakundeekin, gizarte eta enpresa-eragileekin, eta besterekin lankidetzan betiere.

Lotsaz gorritu gabe esan dezakegu Lanbide Heziketak urrats erraldoiak egin dituela Euskadin, eta toki gailenera heldu dela. Atzera begiratu eta konparazioak egin orduko ikus daiteke hori, baina ziamenduak behar bezain sendoak ez direla ere ematen du, agian aurrerapen materialek (teknologia berriak, azken belaunaldiko ekipamenduak, kudeaketa-sistema aurreratuak...) asko kezatu gaituztelako, eta gutxi edo oso gutxi finean edozein erakunderen bizkarrezurra den giza-faktoreak. Zentzu horretan, ez bakarrik ez dugu aurrera egin baizik eta, zenbait gauzatan, atzera egin dugu. Ikastetxeak hasiak dira balorazioak egiten eta, diotenez, ezinezkoa ez bada ere oso zaila izango da berrikuntza eta etengabeko hobekuntza ildoari eustea langileen egungo egoera aldatzen ez bada. Beste arazo batzuk (zuzendaritza, kudeaketaren autonomia-maila, irakasle ez den pertsonala...) alde batera utzita, bada premia-koa iruditzen zaigun bat: bitarteko eta ordezkoen mugikortasuna. Irakasle horiek zentroetan gutxienez ere hiruzpalau urtez egonkortzeko formulak aurkitzen ez badira, azken urteetako aurrerapenak gelditu egingo dira lehenik, eta atzera egingo dute ondoren. Zentzu horretan, gure Lanbide Heziketak bere helburuak eta enpresaren munduak eta gizarteak dituzten itxaropenak bete ditzan nahi badugu, Hezkuntza Administrazioak (Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak) zein gizarte eragileek aparteko ahalegina egin beharko dute egonkortasun hori ahalbidetuko duten akordioetara heltzeko.

Ikaslanek erakundeekin eta enprekin batera jarraituko du lanean, aurrean ditugun erronkak ugariak direla eta bete behar dugun bidea luzea dela jakinik.

PRESENTACIÓN

Este es un año de celebraciones, de aniversarios, varios centros en la Comunidad cumplen 25; Ikaslan Araba cumple 10. Y estos eventos se prestan a que las personas hagamos memoria con un somero recorrido desde el presente hacia atrás y luego reparar más detenidamente en hechos y acontecimientos en el recorrido a la inversa. Estos ejercicios de la memoria suelen ser muy interesantes, nos transportan a vivencias que en el quehacer diario no hay tiempo de evocar y las apartamos al rincón oscuro de la mente; es precisamente en estos casos cuando surgen espontáneamente y se comentan en los corrillos con cierto regocijo, quizá porque los momentos gratos aparecen más nítidos y los difíciles, una vez superados, pierden toda la aspereza.

En una de estas celebraciones, recordaba D. Iñaki Mujika cómo empezó este movimiento de los Ikaslan, primero en Gipuzkoa, impulsado por unas necesidades que en los centros se veían claras, pero en las que no reparaba la Administración Educativa desde su campo de visión global.

Iñaki, y también Imanol al evocar los prolegómenos y primeros pasos de Ikaslan Araba, recordaban sobre todo una cosa: el ambiente de camaradería y de amistad generado a lo largo de las muchas reuniones celebradas, un ambiente que se fue extendiendo con los años, primero en cada Territorio y luego por toda la Comunidad, auspiciado por las reuniones de los tres Ikaslan y con los trabajos y proyectos llevados a cabo en las diferentes redes.

Yo creo que este es el legado más importante, el fomento de las relaciones entre las personas de los distintos centros, el compartir informaciones y conocimientos y acometer proyectos trabajando conjuntamente.

Al hacer esas valoraciones comparativas, casi obligadas en los cumpleaños, desde que Ikaslan comenzó su andadura (Ikaslan Gipuzkoa en el 93, Ikaslan Araba en el 95 e Ikaslan Bizkaia en el 96), casi todos coincidimos en que, aparte de los cambios habidos en la enseñanza a nivel general, en la Formación Profesional se ha producido una verdadera revolución a lo largo de estos años. En esta evolución han influido varios factores: la apuesta seria por una F.P. de calidad desde la Administración, el Plan Vasco de Formación Profesional, con la participación de agentes sociales y representantes empresariales; el haber contado con una Dirección de Formación Profesional dinámica y efectiva, con objetivos claros y ambiciosos; la creación de la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, reforzando así su peso específico.

Desde esa concepción moderna de la F.P., donde se integran los tres subsistemas: Formación inicial o reglada, Formación Continua para el reciclaje de trabajadores y Formación Ocupacional, es necesario destacar también la contribución de otras Instituciones, especialmente las Diputaciones; en el caso de Álava, la Diputación Foral viene impulsando desde hace varios años planes de Formación Continua para reciclar a los trabajadores de las empresas y contribuyendo a la dotación de equipamientos modernos, acordes con las tecnologías emergentes, para impartir esa formación. También otras instituciones y organismos se han implicado con diferentes acciones en la mejora continua de la Formación Profesional.

En toda esta andadura los Ikaslan han jugado un papel destacado, planteando estrategias y acometiendo proyectos de innovación acordes con los avances tecnológicos, sociales y del mundo empresarial, adoptando un sistema participativo de trabajo en redes entre los centros, de colaboración con las Instituciones, agentes sociales y empresariales, asociaciones, etc.

Podemos decir sin rubor que la Formación Profesional en el País Vasco ha dado pasos de gigante y se ha situado en posición destacada, eso se ve a poco que miremos atrás y hagamos comparaciones, pero uno tiene la sensación de que su cimentación no es lo suficientemente sólida, quizá porque nos hemos preocupado mucho de los avances en lo material (nuevas tecnologías, equipamientos de última generación, sistemas de gestión avanzados...) y poco o muy poco de las personas, del factor humano, que es en definitiva la columna vertebral de cualquier organización. En este sentido no sólo no hemos avanzado, sino que, en algunos aspectos hemos retrocedido. Desde los centros se empieza a hacer valoraciones y se apunta que será difícil, sino imposible, mantener esa línea de innovación y mejora continua si no cambia la actual situación del personal. Aparte de otras problemáticas (dirección, grado de autonomía de gestión, personal no docente...), hay una que creemos acuciante: la movilidad de los interinos y sustitutos; si no se buscan fórmulas para que este profesorado se establezca en los centros por periodos de al menos tres-cuatro años, la situación de avance de los últimos tiempos se tornará en un estancamiento primero y luego en retroceso. En este sentido, tanto la Administración Educativa (Dirección General de Personal) como los agentes sociales deberán hacer un esfuerzo para llegar a acuerdos que propicien esa estabilidad, si queremos que nuestra F.P. cumpla los objetivos y las expectativas que tanto el mundo empresarial como la sociedad le demandan.

Desde Ikaslan seguiremos trabajando codo con codo con las Instituciones y con las empresas, conscientes de que tenemos muchos retos por delante y un largo camino que recorrer.